

ERABAKIA, 2021eko AZAROAREN 5ekoa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, EPE LUZEKO EGONALDIETARAKO NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMEN 2022/2023 DEIALDIA ARGITARATZEKO, GRADUKO ETA 90 ETA 120 ECTS KREDITUKO MASTERRETAKO IKASLEEI ZUZENDUA.

Nazioarteko mugikortasunerako programen helburua da unibertsitateko ikasleen mugikortasunerako eskubidea bultzatzea, edozein mailatan daudela ere.

Horretarako, unibertsitateak dei egiten die graduatan eta 90 eta 120 ECTS kredituko masterretan ari diren ikasleei nazioarteko mugikortasunerako plazetara aurkez daitezzen. Plaza horiek esleitzeko aplikatuko da Ikasleen Nazioarteko Mugikortasunerako UPV/EHUko Arautegia, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluaren 2017ko irailaren 28ko ERABAKIAREN bidez onartua, baita hurren azaltzen diren arau espezifiko hauek ere. Hori guztia dela eta, honako **OINARRI** hauek ezarri ditut:

BASES

1.- HELBURUA.....	1
2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.....	2
3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK.....	3
4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA.....	4
5.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.....	4
6.- ESKAERAK ZUZENDU ETA OSATZEA.....	5
7.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO EBAZPENAK.....	5
8.- SEPIEren DIRULAGUNTZAK ERASMUS+ PROGRAMAN.....	6
9.- MUGIKORTASUNEN IKASLEEN BETEBEHARRAK (ERASMUS, LATINOAMERIKA ETA BESTE NORAKO BATZUK).....	7
10.- DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.....	14

1.- HELBURUA

Deialdi honen xedea da ikasleak hautatzea Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak kudeatzen dituen nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzeko 2022/2023 ikasturtean. Ikasleok graduako eta 90 edo 120 ECTS kredituko masterretakoak izan behar dira.

Honako hauek dira programak:

Erasmus+ programa, Latinoamerika programa, eta Beste Norako Batzuk programa.

2.- PARTEHARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Ikasleak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo bizi den herrialdean izan beharko da errefuxiatua, herrigabea, egoiliar iraunkorra, edo aldi baterako egoiliarra (mugikortasuna dirauen artean egoitza baimena daukana), izaera hori kasuan kasuko herrialdeko legeriaren arabera aitortua izanik.

UPV/EHUko nazioarteko mugikortasunari buruzko arautegiari jarraituz, ezin izango dute deialdian parte hartu kanpotik datozen ikasleek, halakotzat hartzen direlarik arautegiko 3.9 eta 8.4 artikuluetan zehazten direnak.

2.2. **Eskaria egiten duenean** ikaslea UPV/EHU n matr ikulatuta egon beharko da, hauetako batean gutxienez:

- **Graduko bigarren mailan¹**
- **90 edo 120 kredituko master bateko 1. mailan.**

Mugikortasuna egingo duen ikasturtean ere (2022/2023) UPV/EHU n matr ikulatuta egon beharko da ikaslea.

2.3.- Aurretik diplomatura, lizentziatura edo gradu bat izanda beste gradu bateko 1. mailan dauden edo 1. mailako moduluren bat egiteko duten ikasleek titulazio berriko 2. mailara arte itxaron beharko dute programa hauetan eskaria aurkezteko.

2.4.- Ikasleak **maila nahikoa** izan beharko du irakasgaiak emango diren **hizkuntzan, atzerriko erakundeak jarritako eskakizunen arabera.**

Eskatzen den hizkuntza mailaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ikastegian bertan esleitzen diren Erasmus+ programako eta Beste Norako Batzuk programako plazetarako, ikasleak bere ikastegiko koordinatzaileari bidaliko dio ziurtagiria.

Nazioarteko Harremanen Bulegoak esleitzen dituen KUPO OROKORREKO plazetarako (atzerriko unibertsitateen taulan IKASTE G IAK zutabean DENAK gisa markatutakoak), eskatzaileak nazioartekoak.certiidiomas@ehu.eus helbidera bidaliko du ziurtagiria.

¹ Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduko ikasleak izan ezik; horiek graduko lehen mailan egin dezakete eskera.

2.5.- Baldintza hauek UPV/EHUko ikasle guztiei aplikatuko zaizkie. Bestalde, **ikasleak galdetu behar dio bera matrikulatuta dagoen ikastegiko Nazioarteko Harremanetako koordinatzaileari ea ikastegiak betebehar gehiago eskatzen dituen.** Ikastegiaren betebehar espezifikoa zorrotzagoak izan daitezke, inoiz ez malguagoak Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak jarritakoak baino.

3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK

3.1.- **Ikasturte bakoitzean mugikortasun bat besterik ezin da egin. Hala ere,** Erasmus+ programaren kasuan ikasleak aukera du ikasturte berean ikasketa mugikortasun bat eta praktika mugikortasun bat egiteko (ikasketa planean agertzen ez diren borondatezko praktikak enpresetan).

3.2.- Atzerriko unibertsitatean egin daitekeen **egonaldi luzeena ikasturtekoa** da.

3.3.- **Egonaldiaren iraupena izan beharko da UPV/EHUk eta atzerriko unibertsitateak sinatutako alde biko hitzarmenean jarritakoa.** Esate baterako, hitzarmen bat sinatu bada ikasle batek 9 hilabeteko egonaldia egiteko, plaza horretarako hautatutako ikasleak 9 hilabeteko egonaldia egin beharko du. UPV/EHUko ikastegiko mugikortasun programen arduradunek egonaldien iraupena aldatzeko eskatuz gero, errektoreordetzak kontuan hartuko ditu eskaerok, betiere egokiro justifikatuta baldin badaude. Eskaerak behin aztertuta, errektoreordetzak baietza edo ezetza emango die, zuzenbidearen arabera.

3.4.- Gehienez ere, bi egonaldi luze egin ahal izango dira ikasten den titulazio bakoitzeko. Egonaldi luzetzat hartuko da gutxienez lauhileko bat dirauena. Hau da, BIP2 batean parte hartzea ez da iraupen luzeko egonalditzat hartuko. Ildo horretatik, Erasmus+ programaren barruan bi egonaldi egin ahal izango dira gehienez, baldin eta programan ezarritako 12 hilabeteko muga gainditzen ez bada, baina horren ostean ezin izango da beste programetan berriro parte hartu.

3.5.- Erasmus+ programan ikasleak gehienez 12 hilabeteko egonaldi bat egin ahal izango du ziklo bakoitzean (graduaren, masterrean edo doktoregoan). Hamabi hilabete horiek bere baitan hartuko dituzte Erasmus ikasketak, Erasmus praktikak eta BIP formatuko egonaldiak.

Beste Norako Batzuk modalitatean KA107 programako beka batekin egiten diren egonaldiak Erasmus+ programako egonalditzat hartuko dira.

3.6.- Ikasleak bigarren aldiz aurkeztu ahal izango da Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programetara, baldin eta beste titulazio bat egiten ari bada, hau da, lehen egonaldiaren garaian egiten zebilenaz bestelakoa.

² BIP: Blended Intensive Programme. BIPeko plazak bere deialdien bidez esleituko dira.

3.7.- Mugikortasun programa batean inoiz parte hartu ez duenak plaza bat lortzeko lehentasuna izango du nazioarteko bigarren egonaldia eskatzen dutenen aurrean titulaziorik gabekoa bestebatean.

4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA

Eskaera GAUR aplikazioaren bidez aurkeztuko da, UNIBERTSITATE TRUKEA atalean. Merkataritza Ganberako Unibertsitate Eskolako ikasleek beren ikastegian aurkeztuko dute eskaera.

Eskaerak aurkezteko epea **2021ko azaroaren 15ean hasi eta abenduaren 9an bukatuko da.**

5.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza da organo eskuduna Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk deialdietako **kupo orokorreko** alde biko hitzarmenetako plazak esleitzeko (GAUREN "DENAK" izenaren pean agertzen dira). Gainerako plazak —**Erasmus+ programakoak** eta ikastegi bakoitzerako kupoa duten **aldebiko hitzarmenetakoak**— ikastegi bakoitzak esleituko ditu.

Honako hauek dira esleipenerako arau orokorrak:

5.1. Plaza hauetarako hautagai izateko, eskaera egitean ikaslea UPV/EHUko gradu bateko bigarren mailan edo master bateko lehenengo mailan matrikulatuta egon beharko da gutxienez, eta atzerriko unibertsitateek eskatutako hizkuntza ziurtagiria izan beharko du.

Ez dira izango hautagai aurreko deialdietan mugikortasun programetako arauak ez betetzeagatik zigorra duten ikasleak.

5.2. Hautaketa irizpideak

Hautaketarako oinarria **merezimendu akademikoa** izango da. Horretarako, kontuan hartuko da 2022/2023 mugikortasun deialdiko hautaketa egiten denean ikasle bakoitzak aurkeztu duen batez besteko nota.

Irizpide hori oinarri hartuta, esleipena honetara egingo da:

- a) Lehentasuna izango dute iraupen luzeko egonaldietarako mugikortasun programetan inoiz parte hartu ez duten ikasleak.

- b) 2021eko irailaren 30ean batez besteko nota altuena zeukaten eskatzaileei esleituko zaizkie plazak. Horretarako, 1,17 koefiziente zuzentzaileaz biderkatuko da ikasketa teknikoetako ikasleen batez besteko nota.

Ikastegiek hautaketa irizpide osagarriak aplikatu ahal izango dituzte beraiek esleitu behar dituzten plazetarako, baldin eta deialdi honetako irizpide orokorren kontra ez badoaz, eta webgunean argitaratuta badaude prozesua hasi baino lehen. Hau da, irizpide horiek ikastegiko organo eskudunak onartuta eta argitaratuta egon beharko dira deialdi hau plazaratu aurretik.

- c) Latinoamerikako programan eta Beste Norako Batzuk programan, merezimendu akademikoen gain, ikastegien arteko banaketa hartuko da kontuan, graduak modu orekatuan egon daitezen ordezkaturik destino bakoitzean.
- d) Bajarik edo ukorik balego, eta egutegiak horretarako aukera ematen badu, libre geratu diren plazak banatuko lirateke destino horretara aurkeztu baina plazarik lortu ez duten hautagaien artean, batez besteko notaren araberrako hurrenkeran.

5.3.- Lortutako plazari uko egin nahi diotenek edo kasuan kasuko programa utzi nahi dutenek GAUR aplikazioaren bidez egin beharko dute, oinarri hauetako 7. puntuari ezartzen diren epeetan. Horrela egiten ez duen ikasleak ezin izango du parte hartu nazioarteko mugikortasun programetan hurrengo ikasturtean.

Epe horien ostean gertatutako ezusteko gorabeherengatik ikasleak plazari uko egin nahi badio edo, behin atzerriko unibertsitatean egonda, programa bertan behera utzi, behar bezala justifikatu beharko du. Errektoreordetzak uko egiteko eskariaren oinarria aztertuko du, eta erabakiko du ikaslea zigortuko duen ala ez hurrengo ikasturtean nazioarteko mugikortasun programan parte hartu barik.

6.- ESKARIAK ZUZENDU EDO OSATZEA

Hamasei egun naturaleko epea egongo da dokumentazioa zuzendu edo osatzeko (ikus egutegia eranskinean). Epe hori igarota ez badira jaso eskatutako agiriak, ikasleak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, aurkeztu ez duen dokumentazioari dagokionez. Aurkeztu gabeko agiriak edota zuzendu gabeko okerrak ez badira eragozpen ikaslearen eskaera orokorrean agertzen diren beste unibertsitate batzuetara joateko, eskariok baliozkotzat hartuko dira.

7.- BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO EBAZPENAK

Emandako plazen zerrenda, itxaron zerrendako ikasleena eta baztertutako eskaerena Nazioarteko Harremanen webgunean argitaratuko dira.

Behin-behineko zerrenda **2022ko urtarrilaren 27an** emango da argitara. Ikasleek **2022ko urtarrilaren 3ra** arteko epea izango dute esateko plaza hartzen duten edo ez. Kasu batean zein bestean, aukera izango dute bigarren bueltan saiatzeko eskuratu dutenaren aurretik eskarian jarri zituzten plazak lortzen, baldin eta horiek eskuratu dituztenek uko egin badiete. Ikasleek 15 eguneko epea izango dute Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari alegazioak aurkezteko, beren ikastegiko Nazioarteko Harremanen arduradunaren bitartez edo Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendariaren bidez.

Behin betiko zerrenda (bigarren bueltaren ondoren) **otsailaren 16an** emango da argitara, eta ikasleek **otsailaren 22ra** arteko epea izango dute esateko hartzen duten ala ez bigarren hautaketan eskuratutako plaza.

Webgune honen bidez egin ahal izango zaio jarraipena prozesu osoari. Era berean, ikasleek GAUREko beren profilaren bidez ikusi ahal izango dute beren eskaeraren egoera.

Plazak esleitzen dituen erabakiak agortu egiten du administrazio bidea. Hala ere, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123. artikulua eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1.a eta 46.1 artikulua).

8.- SEPIEren DIRULAGUNTZAK ERASMUS+ PROGRAMAN

Erasmus+ programaren barruan mugikortasun plaza bat esleitzeak SEPIE dirulaguntza bat dakar, bai mugikortasun fisiko hutseko modalitateetarako, bai mugikortasun konbinaturako (hau da, xede herrialdera fisikoki joatea gutxienez 3 hilabeterako + egonaldi birtuala egitea). Mugikortasun birtualeko eta mugikortasun konbinatuko jarduerak agiriaren bidez egiaztatatu beharko dira (kalifikazioen ziurtagiriaz).

Dirulaguntza jasotzeko, ezinbesteko baldintza izango da ikasleak dirulaguntzarako hitzarmena sinatzea, **mugikortasuna hasi baino lehen**.

Bekaren zenbatekoa Erasmus 2021-2027 programan zehaztutakoa izango da. 2022/2023 deialdian, zenbatekoa izango da xede herrialdeari dagokion zenbatekoa (SEPIEk ezarritakoa) bider hitzarmenean sinatutako hilabete kopurua, eta, gehienez, 7 hilabete ikasturteko. Egonaldiaren amaieran, **CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hil eta egunak egiaztatzeko eta, hala badagokio, Nazioarteko Harremanen Bulegoak ikasleari eskatzeko egiaztatu gabeko hilabeteengatik jasotako dirua itzul dezan.**

ATZERRIKO HERRIALDEAREN BIZI MAILAREN ARABERA (HIRU TALDE)

1. taldea	Danimarka, Erresuma Batua ³ , Finlandia, Islandia, Irlanda, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia, Suedia	310 € hilean
2. taldea	Alemania, Austria, Belgika, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Italia, Malta, Portugal, Zipre	260 € hilean
3. taldea	Bulgaria, Errumania, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Hungaria, Ipar Mazedoniako Errepublikak, Kroazia, Letonia, Lituania, Polonia, Serbia, Turkia, Txekiar Errepublika	210 € hilean

Gainerako laguntzak kasuan kasuko deialdiari jarraituz arautuko dira. Informazioa Nazioarteko Harremanen webgunean emango da argitara, "Dirulaguntzak" atalean.

9.- MUGIKORTASUNEN IKASLEEN BETEBEHARRAK (ERASMUS, LATINOAMERIKA ETA BESTE NORAKO BATZUK)

9.1.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

9.1.1.- ERASMUS+ mugikortasun beka dutenek izango dituzte ERASMUS ikaslearen gutunean aipatutako eskubideak eta betebeharrak, eta bete egin

³ BREXITaren ondorioz, 2022/2023 ikasturtean Erresuma Batuko egonaldiak lehen lauhilekoan baizik ez dira egingo, eta gehienez ere lauhileko bat iraungo dute.

beharko dituzte bai UPV/EHUko Mugikortasun Programei buruzko Arautegia, bai kasuan kasuko atzerriko unibertsitateko arauak, bertan dauden bitartean.

Edozein mugikortasun programatan, Erasmus+, Latinoamerika edo Beste Norako Batzuk izan, eskarian destinoak hautatzerakoan, ikasleen ardura izango da begiratzea beren ikasketak ematen diren ala ez beren intereseko unibertsitateetan. Ikasleak aukeratzen badu bere ikasketak ematen ez diren lekuren bat, edo ikasketa horietarako mugikortasun hitzarmen espezifikorik ez dagoen lekuren bat, galdu egingo du mugikortasunerako aukera.

9.2.- ONARPENA ATZERRIKO UNIBERTSITATEAN

UPV/EHUK mugikortasun plaza bat esleitu izanak **EZ du nahitaez esan nahi xede unibertsitateak ikaslea onartu duenik.** Ikaslearen erantzukizuna da atzerriko unibertsitatean sartzeko kudeaketak egitea. Ikasleak bete beharko ditu unibertsitate bakoitzak onarpen eskabideak aurkezteko (batzuetan online) ezartzen dituen epeak; izan ere, unibertsitate askok ez dute onartzen epez kanpo bidalitako eskaera.

Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programei dagokienez, onarpen gutuna lortzeko tramiteari buruzko informazioa (datak, inprimakiak...) Nazioarteko Harremanen Bulegoaren webgunean dago, horri dagokion atalean. Inportantea da destino bakoitzerako zehazten diren jarraibideei jaramon egitea.

Halaber, ikaslearen ardura izango da bere egonaldiako ostatura gestionatzea, bai eta atzerriko unibertsitateak edo herrialdeak ezar lezakeen beste edozein betebeharrak kudeatzea ere. Unibertsitate batzuetan nahitaezkoa da beraiek edo gobernuak eskainitako osasun aseguru bat kontratatzea. Aseguru horiek kontratatu arren bidaia laguntzarako aseguruak ere kontratatu behar da, bere baitan hartzen dituen osasun garraioa eta interesduna hilez gero aberriratzea, baldin eta atzerrian kontratatutako aseguruak horiek barne hartzen ez baditu.

Era berean, pandemiak eragindako osasun egoera dela eta, ezinbestekoa da kontratatutako aseguruak Covid-19rako estaldura ere ematea, eta gomendatzen da bidaia aseguru bat kontratatzea bidaia bertan behera geratzea barne hartzen duena.

Ikaslea ez badute onartzen esleitutako tokian, Nazioarteko Harremanen Bulegoak, ikastegiko koordinatzailearekin batera, arazoak aztertuko ditu, eta libre legokeen beste tokiren bat esleitzen saiatuko da.

Ikasleak ez du tasarik ordaindu beharko atzerriko unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordainduko baititu. Hala eta guztiz, atzerriko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio ikasleari zenbait gastutarako, hala nola ikasleen sindikatuetan afiliatzeko, materialerako (fotokopiak,

laborategiko produktuak eta abar) edo zenbait jardueratarako, baina bertako ikasleen baldintza berberetan.

9.3.- KONPROMISO AKADEMIKOA

Konpromiso akademikoa (learning agreement) ikasketa kontratu bat da, ikasleak egiten duena UPV/EHUko ikastegiko koordinatzailearekin eta atzerriko unibertsitateko koordinatzailearekin. Erasmus+ programaren kasuan, UPV/EHU Dashboarden bidez egingo da. Bertan jasoko dira ikasleak atzerriko unibertsitatean egingo dituen irakasgaiak eta kredituak, eta atzerriko horiek gaindituz gero, UPV/EHUko ikasketa planean aitortuko zaizkionak. Kontratua loteslea izan dadin, ikaslearen sinadura eta bi unibertsitateetako ordezkarien sinadura baimenduak izan beharko ditu. Erasmus+ programarako, ikasleak, jatorriko ikastegiko nazioarteko harremanen arduradunak eta atzerriko unibertsitateko arduradunak bete beharko dute konpromiso akademikoa, ikaslea atzerrira joan aurretik. Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programetan, ikasleak eta jatorriko ikastegiko nazioarteko harremanen arduradunak behin-behineko konpromiso akademikoa egin beharko dute, ikaslea atzerrira joan aurretik.

Ikastegiko koordinatzaileari konpromiso akademikoaren proposamena aurkeztuko zaio, aztertu dezan. Koordinatzaileak egokitzat jo dezake, edo aldaketak proposa ditzake, arrazoi akademikoetan oinarrituta. Ikasleak behin aldaketak eginda, eta koordinatzaileak behin ontzat jota, dokumentua prest egongo da sinatzeko.

Hala ere, konpromisoa sinatzean ezinbestekoa da ikasleak bere ikastegiko koordinatzaileari aurkeztea bidaia laguntzarako aseguru polizaren eta haren ordainagiriaren kopia. Esan bezala, aseguruak barne hartu beharko ditu osasun garraioa eta aberriratzea. IBILI poliza mugikortasuna hasten denean aktibatzen da, eta, beraz, alde aurretik kontrata daiteke, desplazamendua hasi arte ez baita indarrean jarriko. Dokumentu hori aurkezten ez bada, koordinatzaileek ez dute ontzat emango konpromiso akademikoa.

Erasmus+ programaren kasuan, konpromiso akademikoa ikaslea abiatu aurretik sinatuko dute ikasleak eta bi unibertsitateetako koordinatzaileek, eta dokumentuari aldaketak egin ahal izango zaizkio ikaslea atzerrira heldu ondoren UPV/EHU Dashboarden bidez.

Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programen kasuan, ikaslea abiatu aurretik berak eta koordinatzaileak sinatutako konpromiso akademikoa behin-behinekoa izango da, eta ikaslea atzerriko unibertsitateera heldu ondoren bihurtuko da behin betikotzat. Horretarako, ikasleak dokumentua osatu, eta, hala badagokio, egokituko du atzerriko unibertsitateko nazioarteko harremanen arduradunarekin batera, eta jatorriko unibertsitateko nazioarteko harremanen arduradunari bidali. Hark aztertuko du, eta, ikastegiaren eta UPV/EHUren arauak

betetzen baditu, balidatu egingo du. Horrela ez bada, onartzen ez diren irakasgaiak aldatzea aginduko da.

Dena dela, **ezin** izango dira **INOLAZ ERE** sartu dokumentu horretan UPV/EHUn dagoeneko "gaindituztat" edo "susponsotzat" kalifikatutako irakasgaiak (era berean, ezin izango da eskatu konpromisoan jasota ez dagoen irakasgaiarik aitortzea, nahiz eta ikasleak irakasgai horiek egin atzerriko unibertsitatean). Sartu ahal izango dira, ordea, ikaslea UPV/EHUn matrikulatuta dagoen baina aurkeztu ez den irakasgaiak, "aurkezteke" kalifikazioarekin agertzen direnak.

Titulazio bateko ikasketa planak guztira eskatzen duen baino kreditu gehiagotan matrikulatu behar bada ikaslea, ez delako iristen mugikortasun batean parte hartzeko araudiak eskatzen duen gutxienera, egonaldiaren iraupenaren arabera, baimena eskatu beharko dio koordinatzaileari, bestela irakasgai horiek ezin izango baitira matrikulan jaso.

Egonaldiaren arabera, honako kreditu kopuru hauek (UPV/EHUn matrikulatutakoak) egin beharko dira:

- **Gutxienez 12 kreditu eta gehienez 15 (gomendagarria) 3 hilabeteko egonaldietarako.**
- **Gutxienez 24 kreditu eta gehienez 30 (gomendagarria) 5 hilabeteko egonaldietarako.**
- **Gutxienez 48 kreditu eta gehienez 60 (gomendagarria) ikasturte osoko egonaldietarako.**

Erasmus+ programaren kasuan, nahitaezkoa izango da iraupen bakoitzari dagokion gehieneko kreditu kopuruan matrikulatzea.

Horri dagokionez, gogoan izan behar da ikasturte bakoitzean gehienez ere 60 ECTS kreditu aitortuko direla mugikortasun ekintzengatik, hala baitago jasota Graduako Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegiko 12. artikuluan.

9.4.- ERRENDIMENDU AKADEMIKOA

Ikasleak atzerriko unibertsitatean errendimendu ona duela egiaztatu beharko du eta bertako **egonaldian gainditu beharko ditu UPV/EHUn trukerako moduan matrikulatutako kredituen erdiak, gutxienez. Ehuneko hori gainditu ezean eskatuko zaio mugikortasunerako jaso dituen laguntzak itzultzeko.**

9.5.- ATZERRIKO HIZKUNTZA JAKITEA

Ikasleak behar besteko maila izan beharko du atzerriko erakundeetan irakaskuntzarako erabiliko den hizkuntzan. Atzerriko unibertsitateak zehazten du zein maila izan behar duen ikasleak.

Deialdi honi erantsitako dokumentuetan agertzen den informazioaz gain, unibertsitateen webguneak kontsultatu behar dira, jakiteko zein den ikasleak egiaztatu beharko duen maila plaza bakoitzerako. Maila hori deialdiaren datan izan beharko da egiaztatuta.

Aipatutako eskakizunak gorabehera, Erasmus+ mugikortasuna egiten dutenek hizkuntza azterketa⁴ egin beharko dute OLS plataforman, Nazioarteko Harremanen Bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta, egonaldia egitera abiatu baino lehen. Ikasle guztiek egin beharko dute OLSko azterketa, berdin da egonaldi fisikoa edo birtuala egin behar duten.

Plaza esleitu ondoren, ikasleari mezu elektronikoa bat helduko zaio Online Linguistic Support aplikaziotik (OLS), egonaldia baino lehenago hizkuntza mailaren ebaluazio bat online egiteko, baldin eta atzerriko unibertsitatean irakaskuntzan erabiliko den hizkuntza nagusia hauetako bat bada: alemana, bulgariara, daniera, errumaniera, eslovakiera, esloveniera, estoniera, finlandiera, frantsesa, greziera, hungariera, ingelesa, irlandera, italiara, kroaziera, letoniera, lituaniera, maltera, nederlandera, poloniera, portugesa, suediera edo txekiera; edota horrela adosten denean atzerriko unibertsitatearekin, ikaslea kasuan kasuko hizkuntzan jatorrizko hiztuna ez bada.

Ikasleak hizkuntza mailaren ebaluazioa egiten ez badu, ezin izango du mugikortasuna egin eta Erasmus+ programatik kanpo geratuko da. Horrek esan nahi du ez duela jasoko ez bekarik ez atzerrian egindako ikasketen aitortpen akademikorik.

9.6.- MUGIKORTASUNA EGITEA

9.6.1.- Ikaslea ezarritako egunean hasiko da atzerriko ikastegian. Hala egiten ez badu, mugikortasunari uko egin diola ulertuko da. Berehalak eman beharko zaio egoera horren berri errektoreordetzari, GAUR aplikazioaren bidez. Izan ere, jakinarazi ezean, ikaslea baztertua geratuko da UPV/EHUko mugikortasun programen hurrengo deialditik.

Ikasleak bere borondatez uzten badu mugikortasuna bertan behera, behin hasita, jakinaren gainean jarri beharko du errektoreordetza, GAUR aplikazioaren

⁴ Hizkuntza azterketa bakarrik da jakiteko ikasleak zein maila duen egonaldia egin aurretik, eta ez dauka zerikusirik egonaldia egiteko eskatzen den nahitaezko ziurtagiriarekin.

bidez edo mezu bat bidalita nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus helbidera, bere egoera eguneratzeko. Egoeraren berri ematen ez badu eta laguntzarik ordaindu bazaio, fede txarreko jokabidetzat hartuko da. Edozelan ere, ikasleak mugikortasuna bertan behera uzten badu baimenik gabe, jasotako laguntzak itzuli beharko ditu.

Mugikortasunaren iraupena edo lauhilekoa aldatu ahal izateko, Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta ikastegiko koordinatzaileak oniritzia eman beharko du, bai eta atzerriko unibertsitateko programaren arduradunak ere, eskariaren arrazoiak aztertu eta gero. Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9.9 atalean aipatzen dena aplikatuko zaio ikasleari.

9.6.2.- Ikasleak egiaztatu egin beharko du egonaldia benetan egin izana eta haren iraupena. Horretarako, egonaldia hasi edo bukatu eta gehienez hilabetera, kasuaren arabera, egonaldiaren hasierako agiria (*Certificate of arrival*) eta amaierako agiria (*Certificate of Attendance*) aurkeztu beharko ditu, atzerriko unibertsitateak izenpetuta eta zigilua ezarrita. Ziurtagirietan ikusiko balitz egonaldian emandako hilabeteak izan direla ordaindutakoak baino gutxiago, egiaztatu gabeko hilabetei dagokien dirua itzultzeko eskatuko da, kasuan kasuko diru laguntzen programako arauei jarraituta.

9.7.- NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

9.7.1.- Europako Osasun Txartela eskuratu beharko da Gizarte Segurantzian (ERASMUS programarako bakarrik) eta, atzerriko unibertsitateara **iritsi aurretik**, bidaiarako aseguru bat egin beharko da, egonaldi OSOAN gaixotasunagatik (Covid-19a barne) eta istripuengatik jaso beharreko arreta medikua bere baitan hartzen duena eta, bereziki, gastuen mugagabeko estaldura duena interesduna hilez gero aberarriratzeko eta bere herrialdera bueltara eramateko, gaixotasun edo istripu larria izanez gero. 9.3 puntuan adierazi denez, ikasleak aseguru osagarri horren polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko ditu konpromiso akademikoa sinatzen duenean jatorriko ikastegiko nazioarteko harremanen arduradunarekin batera.

Ikasleak ez badio aurkezten aseguru osagarriaren egiaztagiri hori jatorriko ikastegiko nazioarteko harremanen arduradunari konpromiso akademikoaren proposamenarekin batera, arduradunak ez du sinatuko konpromiso akademikoa eta ez du emango ontzat dokumentu hori. Beraz, ikasleak ezingo du egin Erasmus+ mugikortasuna eta unibertsitateak bere kabuz emango dio baja programa horretan.

9.7.2.- Mugikortasunari hasiera eman aurretik, ikasleak sinatuta aurkeztu beharko du GAUReko profilean eskura daukan **dirulaguntzarako**

hitzarmena (ERASMUS dirulaguntzarako hitzarmena edo LA/BNB dirulaguntzarako hitzarmena, errektoreordetzatik LA/BNB programetarako laguntza bat jasoz gero). Era berean, egonaldia amaitu ostean, IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA egin beharko dute ERASMUS+ programako ikasleek, webgunearen bidez.

Dirulaguntzarako hitzarmenak arautzen ditu, UPV/EHUren nazioarteko mugikortasunerako arautegiarekin eta oinarri hauekin batera, deialdi honen bidez mugikortasun programa batean parte hartzen duen ikaslearen baldintza, eskubide eta betebeharrak ekonomikoak.

9.7.3.- ERASMUS mugikortasunen kasuan, Nazioarteko Harremanen Bulegoak **Certificate of Attendance** agirian azaltzen diren datak sartuko ditu Europako Batzordeak programa kudeatzeko darabilen tresna informatikoan, eta orduan batzordeak mezu automatiko bat bidaliko die ikasleei **azken txostena** egin dezaten.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, ikaslea adi egon beharko da ikasturtea amaitu arte.

Mezua "eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu" helbidetik (letra xehez) helduko da "ikasle" helbide elektronikora, eta gerta liteke spam karpetara sartzea. Bertan esteka bat ematen da txostena eskuratzeko eta, behin jasota, 30 egun naturaleko epean itzultzeko.

Ikasleak txostena bete ezean, programa ez duela bete ulertuko da eta gerta liteke jasotako dirulaguntza itzuli beharra eta ERASMUS mugikortasunaren aitortzea.

9.7.4.- Atzerrira joan aurretik, bisatua lortzeko izapideak egin beharko ditu ikasleak, herrialdeak halakorik eskatzen badu, bai eta atzerriko unibertsitatean hasi ondoren herrialdean egoteko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako tramite administratiboak ere. Nazioarteko Harremanen Bulegoak ez du izango erantzukizunik ikasleak mugikortasuna galtzen badu tramite pertsonal horiek ez egiteagatik.

9.8.- EGONALDIAREN LUZAPENAK

Egonaldia luzatzeko eskaria egin ahal izango da, baina bakarrik ikaslea atzerriko unibertsitatean dagoenean. Onartutako hilabete kopurua baino egonaldi luzeagoa egin nahi izanez gero (betiere 12 hilabeteko muga gainditu barik ikasturte batean), ikasleak koordinatzaileen baimena izan beharko du (jatorriko nahiz atzerriko unibertsitatekoena).

Egonaldia luzatuko da baldin eta ikasketa kontratuan (*Learning Agreement-Konpromiso akademikoa*) egin beharreko aldaketak egiten

badira, Erasmus programaren kasuan UPV/EHU Dashboard-en. Bestalde, aseguru mediko gehigarriaren indarraldia luzatu izanaren agiriaren kopia aurkeztu beharko da. Gainera, eskatzailearen UPV/EHUko ikastegiak idatziz eskatu beharko dio Nazioarteko Harremanen Bulegoari luzapenerako baimena.

Luzapena ez da izango, inolaz ere, automatikoa, eta **ez du berez ekarriko luzapeneko hilabeteetarako dirulaguntza jasotzeko eskubiderik.**

9.9.- ARAU HAUSTEAK

9.9.1.- Aipatutako betebeharrak justifikaziorik gabe ez betetzeak ondorio hauek izan ditzake, kasuan kasu: beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, dirulaguntzarako hitzarmena ezeztatzea (eta, ondorioz, ikasleak jasotako dirulaguntza guztiak itzuli behar izatea), eta ikaslea baztertzea errektoreordetza honek gerora bultza ditzakeen mugikortasun programetako hautaketa prozesu guztietatik.

Era berean, ikasleak ez baditu betetzen kredituei, hizkuntzari, aseguruari eta abarri dagozkien baldintzak atzerriko unibertsitatera iristen denean, baja emango zaio automatikoki programan.

9.9.2.- Zehatzago esanda, hitzartutakoa baino egonaldi laburragoa eginez gero, dirulaguntzarako hitzarmenak behartuko du ikaslea jasotako laguntza proportzio horretan itzultzeraz, CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoan agertuko diren egun efektiboen kalkularen arabera.

9.9.3.- Bestalde, errendimendu akademikoaren arloko betebeharrak betetzen ez baditu, ikasleak jasotako laguntza osoa itzuli beharko du.

10.-DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Erabaki honetan ezarritako arauak hautsiz gero, errektoreordetzak jakinarazpen bat bidali ahal izango dio ikasleari laguntzak itzularazteko prozedurari ekin aurretik. Ikasleak dirua itzultzeari uko eginez gero, prozedura honi jarraituko zaio:

- a) Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak interesdunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura ireki dela eta horren arrazoiak azalduko dizkio. Instruktoe bat izendatuko du eta hamabost eguneko epea zabalduko du ikasleak alegazioak egin ditzan eta nahi dituen frogak proposatu. Prozedura irekitzearekin batera eten egingo dira ordainketak.
- b) Alegazioak jasota edo horiek egiteko epea alegaziorik gabe igarota, aurrera jarraituko da prozedurarekin eta interesdunari onartu zaizkion

frogak egingo dira. Horren ostean, erabaki proposamena aurkeztuko da, eta interesdunari jakinaraziko zaio, azken alegazioak egin ditzan. Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak izango du eskumena erabakia emateko. Prozedura ebatzeko gehieneko epea sei hilekoa izango da. Ez dira zenbatuko administratuak ezer egin ez duelako jarduerarik egon ez den aldiak. Frogatutzat jotzen bada ikasleak betebeharretan huts egin duela, erabakiak xedatuko du laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela, eta, hala dagokionean, Euskal Herriko Unibertsitateari kasuan kasuko zenbatekoa gehi legezko interesa itzuli behar diola, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen duenetik hasita.

- c) Prozedura amaituta, eta ez bada itzuli dirua borondatezko epearen barruan, premiamendu bidez erreklamatu da eta jakinaren gainean jarriko dira Gerentzia, Graduak eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordea eta gaian eskumenak dituzten Euskal Herriko Unibertsitateko organoak, dagokien lege eta arauen arabera neurriak har ditzaten.

Dirua itzultzeko beharra ezartzen duen erabakia betetzen ez bada, batere edo ez bere osoan, interesduna UPV/EHUren zordun bihurtuko da, horrek ekar ditzakeen ondorio juridikoekin.

OHARRA.- Ikasle batek azkenean ezin badu egin mugikortasuna UPV/EHUri ez dagozkion arrazoiengatik, unibertsitateak ez ditu hartuko bere gain haren gastuak (hegazkin txartelak, ostatu erreserbak eta abar).

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Hala ere, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal zaio Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123. artikulua eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1.a eta 46.1 artikulua).